

Martutene

Inoiz baino haur gehiago ikastolan

Urtetik urtera, gero eta ikasle gehiago daude auzoko Arantzazuko Ama ikastolan. Dena den, haurtzaindegia izatea da Martutenek duen erronkarik nagusienetakoa, gurasoek seme-alabak beste auzoetako ikastetxeetara eramanez ditzaten.

Aitor Urkizu Azuabarrena

Martutenek azken urteotan izandako biztanle gorakada Arantzazuko Ama Ikastolako matrikulazioetan ere islatu da. Aurreko bi urteetan ez ziren hamarrera iritsi lehen aldiz matrikulatutako umeak. 2002-2003 ikasturtean, aldiz, 19 ume hasiko dira ikastolan, bi urteko gelan, hain

zuzen ere. Ikastolako zuzendari Felixi Etxeberri esan digunez, "oso pozik gaude datorren ikasturtean bi urteko ume asko etorriko zaizkigulako". Udalak aurreikusitako duenez zenbait etxebizitza eta industria gune berri egitekoak dira Martutenen eta hori ere azpimarratu nahi izan du Felixik: "Auzoa etengabe hazten ari da, eta hori aintzat hartuta, datozen urteetan litekeena da aurtengo matrikulazio kopuruari eustea".

Auzotarrak bat datoz ikastolako zuzendariaren iritziarekin: "Batik bat, anbulategian eta jolas parkeetan sumatzen da gero eta ume gehiago dagoela Martutenen". Bestalde, bai gurasoek eta baita Arantzazuko Amako zuzendariak ere aipatu digutenez, "duela urte batzuk ikastolak fama txarra hartu zuen, eta zabalduko zurrumurruek ondorioz, ume gutxi etortzen zitzaizkigun.



Egun, berriz, auzotarrek bada-kite ikastolak heziketa egokia ematen duela eta gurera etortzen dira".

Haurtzaindegiaren premia

Auzoko ikastolan bi urtetik gorako umeak sartzen dira. Bi urtetik beherakoentzat auzoan ez dago haurtzaindegirik, ez ikastolan, ez beste inon. Garai batean Apostolutza izeneko ikastetxeak haurtzaindegia zuten, baina ikastetxea itxi ze-

nean auzoa haurtzaindegirik gabe geratu zen. Hortaz, goizean goiz lanera joan behar duten gurasoek haurtzaindegia duten eskoletara eramaten dituzte seme-alabak eta haur gehienek auzotik at dauden ikastetxeetan osatzen dute euren heziketa, ikastola baino askoz ere garestiagoak izan arren. Auzotarrek haurtzaindegia funtsezkotzat jotzen dute eta luze jo gabe auzotik kanpora umeak ez eramatea espero dute. Horrela izango ahal da!

Aurten ere Poesia Topaketak

Azken bi urteetan legez aurten ere Poesia Topaketak egingo dira Loiolan. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da eta hilarren 27an, larunbata, egingo dira Loiolako Barnetegi base-rrian, hain zuzen ere. Itxaro Borda, Jose Fernandez de la Sota eta Sara Zanghi izango dira aurtengo Poesia Topaketetan parte hartuko duten idazleak.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti

gizarte ekintza
obra social

BIAK



**ELEKTRO MEKANIKA
Kotxe konponketa**

Zurriola Pasealekua, 24
Tel.. 943 27 56 60
20002 DONOSTIA

**San Telmo
Goilarea**



Pintxoak, Kaxuelak,
Miniatura Sukaldaritza
eta Platerekoa

